

Iraila gozo Santakruzak Festekin

Gaur hasiko dira Lezoko bigarren festak, santakruzak. Astelehenera arte, 50 ekitalditik gora aukeran irailako maldari aurre egiteko. 17-27-30

OSTIRALA, 2024KO IRAILAREN 13A

Santakruzak

2024

LEZO

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Santakruzak
gozatu!

Festa gogoak har ditzala Lezoko kaleak

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Lezoko kaleek herritar zaparrada jasoko dute gaurtik astelehenera arte. 19:00etan dira hastekoak 2024ko Santakrutz Festak alkate txikien eskutik. Mikel Arruti alkate *nagusiak* gustura emango die aginte makila gatzetxoei, *Lezoko herria* ereserkiaren babespean.



Festetako ekitaldi jendetsuenetako I-14ko bazkaria izango da. U. E.

50 ekitalditik gora prestatu dituzte festen arima diren Jai Batzordeko kideek. Gehienak bihar (larunbata) izango dira, Santakrutz Eguna edo I-14

Eguna baita: bazkari bateratu erraldoiak eta horren ingurukoek ezaugarrituko dute eguna. Baina badira askoz jarduera gehiago lau egunetan, herriko eragileek lezoar denei begirako unetxo sorta landu dutelako. Bisitariak, nola bestela, besoak zabalik jasoko dituzte.

Jende uholde horrek festak askatasunean eta erasorik gabe bizi ditzan deia egin dute Iruntzenek, Gaxuxak eta Piztu Lezok. Udalarekin elkarlanean eraso sexistei aurre egiteko lanketa egin dute (*oarsoaldea.hitza.eus* en ikus daiteke), «Lezon eraso sexistek jai dute», esan dute. Espazio seguruak behar baitute santakrutzek. Festak elkar egoteko, gozamenerako, aldarte ona konpartitzeko eta sentimenduak baikor azaltzeko eremu baitira. ■

karlanean eraso sexistei aurre egiteko lanketa egin dute (*oarsoaldea.hitza.eus* en ikus daiteke), «Lezon eraso sexistek jai dute», esan dute. Espazio seguruak behar baitute santakrutzek. Festak elkar egoteko, gozamenerako, aldarte ona konpartitzeko eta sentimenduak baikor azaltzeko eremu baitira. ■

Oroitzene eta Zabarre, giro erraldoiaren arduradun

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Esta eta ospakizun berezietan ezinbesteko osagai dira. Kaleak ez lirateke berdin erraldoirik gabe. Horian barruan, ordea, jaiak beste era batera bizi dituzten pertsonak daude. Lezoko erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak dira horien arduradun: Oroitzene eta Zabarre erraldoien; eta Belarrimotz, Eneko, Joannes eta Kaxkagor buruhandien gidari dira.

Iñaki Gonzalez da konpartsako ki-deetako bat. Garbi du zein den haien misioa: «Alaitasunez eta pozez bira eta bira aritzen gara. Hori da gure egunerokoa jaietan. Txikiei nahiz haien gurasoei une magiko horiek oparitzen saiatzen gara». Txupinazioa da konpartsakideen ustez santakruzetako unerik gozoena, «suziria bota baino lehenago nabari den emozio eta alaitasuna» da, «ez du parekorik». Festen egitarauari erreparatuta, egunero dira herriko karriketara ateratzekoak Oroitzene, Zabarre eta enparauak. Badute lana.

Erraldoiak dantzatzen lau kide izaten dira, binakako txandak egiten dituzte Gonzalezek zehaztu duenez, «lan karga banatzen dugu, arnas hartzeko». Hamar urte daramate herriko erraldoiei bizia ematen, «33 urteko adin media dugu konpartsakideok. gazte hasi ginen, beraz». Ongi ezagutzen dute ofizioa.

Biharko egun handiari izaera berezia emango diote. Iruñeko Txantreako erraldoien konpartsa ekarriko dute Munttar Txistulari Elkarteko ezin-



Herriko erraldoiak, iazko santakruzten hasierako ekitaldian, udaletxearen atarian. U. E.

besteko konplizeekin batera I-14a girtzeko, 12:00etatik aurrera. Gustuko dute beste herrietako konpartsek zer eta nola egiten duten ikustea, eta ahal dela, kultur aberastasun hori Lezora ekartzea. ■

Taloka *Aupa Gu ta Gutarrak!*
KAFE OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Polentzarrene Kalea, 3 | 20100 Lezo | T. 943 520 420 | www.taloka.net

**FINKEN
KUDEAKETA
INTEGRALA**
ABOKATUAK
Juan Luis Urkizu
Urretabizkaia
Jose Ramon Perez
Bendaña
Gora Santakruzak!
Aralar kalea 2, behea . 20100 LEZO . 943 34 40 21

Kale nagusia, 2.
20100 LEZO
Tel: 943 52 92 44
**SAHATSA**
Taberna
**Ondo pasa
Santakruzak!**
OGITARTEKOAK:
- tortilla
- urdaizpikoa
PINTXOAK:
Hotzak eta
beroak



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.earsoagenda



Ikerne Zarate



HITZA



Desfilearen Aldeko Taldea

DANBOR JOTZAILEEN MOBILIZAZIOA

GAUR, 22:45EAN. Santakrutzen osagai nagusietakoa herriko elkarteen danborradak dira. Gaurko 22:45ean irtengo dira Allerru, Altzate, Ixkulin eta Tiñeluko segizioak kale-mobilizazio erraldoian. 23:45ean elkartuko dira Gurutze Santuaren plazan.

HERRITARREN ETA FEDERATUEN FINALAK

BIHAR ETA ETZI. Josetxo Etxandi esku pilota oroitaldiak XLVIII. ekitaldia du aurtun. Aurreko asteetako kanporaketa faseen ondoren, finalak festak bitartean jokatuko dituzte Josetxo Etxandi pilotalekuan. Kirolari federatuenak bihar (larunbata) izango dira 17:30ean, eta herritarrena etzi 17:00etan. Eguraldia txarra balitz Koldobike Gezalan jokatuko dira partidak.

ELEGANTZIA ETA UMOREA, DESFILEAN

ETZI, 12:00ETAN. Santakrutz Egunaren biharamunean, igandearrekin, balizko ajeari umorez eta elegantziaz aurre egingo diote lezoarrek. Desfilearen Aldeko Taldearen ekimenez, dozenaka izango dira inude eta artzainen kalebueltan parte hartuko duten herritarrak, adin guztietakoak. Lopene plazan hasiko dute desfile koloretsua.

muttULEZO

KIROL JARDUERAK 2024/25



KOZ
KIROL
ORIENTAZIO
ZERBITZUA



Maddi
T. 674 171 681
koz@lezo.eus

TIPI- TOPA



Ostegunetan
10:30ean

Tipi luzea 10:45
Tipi motza 11:00
Topa 12:00

Gurutze Santuaren Plazan

LEZOKO EMAKUME KORRIKALARIAK



23
ik. martxa

Astelehenetan
19:00etan

Koldobike Gezala Frontoian

MARTXAN



+60

24
ik. martxa

Astelehenetan
10:00etan

Koldobike Gezala Frontoian

LEZOKO EMAKUME INDARTSUAK



24
ik. martxa

Asteartetan
19:30- 20:30

Bekoerrotako kiroldegian

NORDIC WALKING



2
ik. martxa

Asteazkenetan
16:00-17:30

Koldobike Gezala Frontoia
kanpoaldean

